



4. ENERGIA

Ekipoa	Mikrokogenerazioko unitate trinkoa
Kodea	D-4010
Inguruen-hobekuntza	<p>Kogenerazio-instalazioek oinarrizko energia aurrezteko daukaten potentziala oso handia da, elektrizitatea eta beroa bakoitza bere aldetik sortzeko prozesuekin alderatuz gero. Sistema horien bidez, neurri handi batean aprobetxatzen da erabilitako erregaiaren energia. Aurrezten den portzentajea inguruko baldintzen arabera da, baina normalean % 80tik gorakoa izaten da.</p>
Deskribapena	<p>Mikrokogenerazioko unitate trinkoek eta eskala txikiko kogenerazioko unitateek osagai hauek dituzte: motosorgailu bat eta motorreko irteera-gasen berreskurapen termikorako sistema bat. Unitateak edukiontzietan edo kabinetan itxita egoten dira, eta, normalean, kogenerazio-unitateka banatzen dira.</p> <p>Unitate horiek «Plug & Play» gisa izendatzen dira, hau da, fabrian amaituta eta probatuta daude; beraz, instalatuko diren lekuan jartzeko nahikoa da sarera konektatzea. Konexioa sarearekin paraleloan egin daiteke (energia elektrikoa esportatu edo inportatu nahi bada soberakinak botatzeko edo defizitak konpentsatzeko) edo saretik kanpo (ekipoak modu autonomoan funtzionatzea nahi bada).</p> <p>Txosten honen ondorioetarako, 1 MW elektrikitik beherako potentzia instalatua duten kogenerazioko unitate konpaktuak ebaluatzen dira. 2004/8/EE Zuzentarauaren arabera, ezaugarri hori betetzen dute mikrokogenerazioko unitateek (potentzia < 50 kWe) eta eskala txikiko kogenerazio-unitateek (50 kWe < potentzia < 1 MWe).</p> <p>Mikrokogenerazioko moduluek larrialdietarako multzo elektrogenoen funtzioak ere bete ditzakete.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen eta erabilerak	<p>Elektrizitatea eta ur/aire beroa aldi berean jasotzeko eskaria egiten duen edozein instalaziotan aplikatu daiteke teknologia hori (zerbitzuen sektorean nahiz ETE industrialetan). Horrenbestez, sektore guztietan aplikatu daiteke.</p>



Ekipoa	Errendimendu handiko bero-ponpak (SPF>2,5)
Kodea	D-4013
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none">- Energia-efizientzia hobetzea.- Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea.
Deskribapena	<p>Bero-ponpa bat makina termiko bat da, beroa iturri hotz batetik xurgatu eta iturri bero batera banatzen duena. Bero-ponpa gehienek konpresiozko ziklo termodinamikoaren bidez funtzionatzen dute. Hauek dira ekipo horien barruko osagai nagusiak: konpresorea, kondentsadorea, espantsio-balbula eta lurrungailua.</p> <p>Teknologia Garbien Euskal Zerrendan, soilik 2,5 baino gehiagoko SPFa duten errendimendu handiko bero-ponpak sartu dira. Balio hori justifikatzeko, fabrikatzailearen zehaztapen teknikoak erabiliko dira, eta horrek UNE-EN 14825 araua kontuan izango du urtaroko errendimendua kalkulatzeari dagokionez.</p>
Zein sektoretan aplikatu daitekeen eta erabilerak	Sektore guztietan aplikatu daiteke, baina soilik 2,5 baino gehiagoko SPFa duten bero-ponpetan.